

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Irailaren 7a arte egongo da zabalik matrikula- epea Zubiarte Euskaltegian

Astean, bat, bi, hiru eta lau eguneko ikastaroak eskaintzen dira

Osteguna, 2017.eko abuztuak 31

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, irailaren 7a arte egonen da zabalik Zubiarte euskaltegian matrikulatzeko epea, ikastaroak astean egun batekoak, bikoak, hirukoak edo lau egunekoak izan daitezkeelarik.

Astean egun batean autoikaskuntza eskainiko da, bi ordu Zubiarten eta lanak on-line egiteko konpromezua. Mailak: A1, A2, B1, B2, C1 eta EGA.

Bi egun astean: Mailak: A1, A2, B1, B2, C1 eta EGA bi saiotan (astelehen eta asteazkenean edo astearte eta ostegunean); ordutegiak: 9:15-11:45, 17-19:30 eta 19:30-21:30. Mintzamina landuz: mailak B2-C1 (astearte eta ostegunean goizez), eta taldeak auzo eta herrietan goiz eta arratsaldez.

Hiru egun astean: Kanpoko ikastaroak, mailak A1, A2, B1 eta B2 hainbat ikastetxetan, ordutegia eguerdian, astelehen, astearte eta ostegunetan.

Lau egun astean, mailak B1 eta B2, astelehenetik ostegunera. Ordutegiak: 9:15-11:45, 17-19:30 eta 19:30-21:30.

Matrikula Zubiarte Euskaltegiko web gunean egin behar da: <http://euskaltegi.educacion.navarra.es/web/>, edo Zubiarte Euskaltegian bertan, Zubiarte, 13, 31620 Uharte.

Prezioei eta ikastaroei buruzko informazio gehiago web orri horretan kontsulta daiteke edo Euskaltegira joz: posta elektronikoa: euszubia@educacion.navarra edo 848 431010 telefonora deitua.